

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2013ko MARTXOAREN 14an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko martxoaren 14an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: *Gotzon Jauregi Sarasola*  
*Aritz Usandizaga Larrañaga*  
*Imanol Aranzabal Lasa*  
*Karlos Irazu Muñoa*  
*Jon Tejeria Otermin*

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
  - **2013ko otsailaren 14an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. 2012ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada.**
- 4. Manuel Larramendi Kultur bazkunari 2013 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 5. 2012-2013 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala badagokio.**
- 6. X. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriale"-ri 2013 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 7. 2013 ekitaldirako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala bada.**
- 8. Donostiako Administrazioarekiko auzien 2 zk. Epaitegiak emandako 34/2013 autoaren berri ematea.**
- 9. Fakturak eta ordainketak.**
- 10. Beste batzuk.**
- 11. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### LEHENENGO PUNTUA

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2013 urteko otsailaren 14ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### BIGARREN PUNTUA

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

05/2013 Alkateza Ebazpena, martxoaren 7koa, Larraulgo Udalaren 2012ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### HIRUGARREN PUNTUA

#### **2012KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Idazkari-kontuhartzaileak 2013/05 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2012 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.


## **05/2013 DEKRETUA**

Udal honen 2012ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2012ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2012-12-31n:		26.393,52
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2012-12-31n:		20.601,96
Aurrekontuko zordunak :	20.326,35	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	275,61	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2012-12-31n:		36.977,08
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	17.014,59	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	19.962,49	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		10.018,40
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- 2012ko abenduko aparteko lansariaren erretentzioa		3.580,65
7.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		6.467,75
8.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
9.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		6.467,75
10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		29.108,51
11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
12.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		0,00
13.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
14.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		29.108,51
15.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		422.401,85
16.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		0,00
17.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		422.401,85

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.


**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

### LAUGARREN PUNTUA

### **MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2013 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

*Une honetan, arratsaldeko 19.50 orduetan, Gotzon Jauregi zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.*

Ikusirik 2013 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurkeztu duela “Beterrri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalarri dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 2.030 eurotako ordainketa egitea eskatzen da.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Krisi garaian gaudela eta Larraulgo Udalak bere aurrekontuak egiterakoan hainbat partida murriztu beharrean suertatu dela, “Beterri-Aiztondo gerora bidean egitasmoaren” aurrekontuaren koste osoa ezinezkoa egiten zaiolarik onartzea. Horregatik proposatzen da “Beterri-Aiztondo gerora bidean egitasmorako” 1.000,00 eurotako diru ekarpena burutzea.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- “Beterri-Aiztondo gerora bidean” 2013 ekitaldirako aurkezturiko aurrekontua 1.000,00 eurotako kopuruan onartzea eta ordainketa burutzea, hau da 1.000,00 euro.

BIGARRENA.- 2013ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **2012-2013 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2012-2013 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

### ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- 2012-2013 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **X. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2013 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, X. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memorialaren” aurrekontua bidali duela, guztira 19.000 eurotako dena, datorren martxoaren 10ean ospatuko dena. Larraulgo Udalari 607,98 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 607,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2013 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **2013 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA**

Alkate jaunak 2013 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen du, kuota gordina 17.338,31 eurotako delarik.

Bertaratuek, aipatutako errolda fiskala azterturik, ahobatez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2013 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.


BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2013 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2013ko apirilaren 2tik ekainaren 3ra bitartekoa izatea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 2 ZK. EPAITEGIAK EMANDAKO 34/2013 AUTOAREN BERRI EMATEA**

Idazkari andreak batzarkideei jakitera ematen die 2013ko otsailaren 21ean Larraulgo Udaletxera iritsi zela Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 Zk. Epaitegiak emandako 34/2013 autoa, non Larraulgo Udalarik jakitera ematen dion 372/2012 administrazioarekiko auzia bukatutzat aitortzen dela, helegitea jartzeko objektua desagertu delako.

Batzarkideak Donostiako Administrazioarekiko auzien 2.zk.epaitegiak emandako 34/2013 autoaren berri hartzen dute.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

*Une honetan, arratsaldeko 20.00 orduetan, Jon Tejeria zinegotzia Udalbatza honetara bertarutzen da.*

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IZENPE	84,20
DIONISIO ORMAZABAL	14,31
FONGUI	11,33
URAIN	42,14
M.URANGA	4.497,57
BABESA SUZAI	207,38
FERRETERIA BARBE	73,06
KOLDO JAUREGI	55,66
KIROLZER	135,60
EBA ERKIZIA	479,79
IZFE	1.886,68
EINBER	140,36
BELAKO	30,00
AITZOL UDAL EUSKALTEGIA	48,72
EUSKALTEL	2,66
GAS NATURAL FENOSA	160,40
MOVISTAR	132,48
MOVISTAR	87,86
MOVISTAR	17,27
MOVISTAR	106,18
MOVISTAR	20,99
REPSOL	355,57
REPSOL	965,96


Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **9.556,17** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**HAMARGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**HAMAIKAGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

**11.1. MARTXOAK 21: ARRAZAKERIA ETA XENOFIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA, ADIERAZPEN PUBLIKOAREN AZTERKETA.**

*Une honetan, arratsaldeko 20.40 orduetan, Karlos Irazu zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.*

Batzarkideak aho batez erabakitzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkezturiko adierazpen instituzionala mahai gainean uztea “ martxoak 21: Arrazakeria eta xenofobiaren kontrako nazioarteko eguna”.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA